



Eguneroko maitea

Urtarrilak 1

Eguneroko maitea:

Urtero-urtero neure buruari esaten diot eguneroko bat idatziko dudala, baina ondoren ez dut inoiz egiten; hasi bai, baina amaitu ez.

Eguberri egunean, jaiki eta egongelara joan nintzenean, opari bat neukan zuhaizpean. Ireki eta... zer nolako sorpresa! Koardeno polit hau ekarri zidaten Mari Domingik eta Olentzerok. Nik uste dut beraiek badakitela urtero egunerokoa idaztea pentsatzen dudala, eta esandakoa ez dudala inoiz betetzen. Ziur nago horregatik ekarri didatela opari hau.

Gaur urte berriari ekin diogunez, egunerokoarekin hastea erabaki dut. Eta lortuko dut, aurten bai!

Batzuetan denborarik ez dudala jartzen dut aitzakia bezala egunerokoa ez idazteko. Gauza gehiegi izaten ditut egiteko: eskolara joan, etxeko lanak egin (batzuetan pila bat bidaltzen digute irakasleek), eskolaz kanpoko ekintzetara joan (eskubaloia, musika eta marrazketara joaten naiz), amonaren etxera joan bisitan... eta, noski, jolastu ere egin behar dut.

Horrenbeste gauzarekin, agian egunero ez dut astirik izango idazteko, baina zin egiten dut gutxienez astean behin kontatuko dizudala nire bizitzaren inguruko zerbait. Batzuetan, agian, aste horretan gertatutako zerbait kontatuko dizut; beste batzuetan, txikitako oroitzapenen bat idatziko dizut; eta, beste batzuetan, agian, desioaren bat, sentimenduren bat... ez dakit, ikusiko dut.

Gaurkoan, gauzatxo bat kontatuko dizut, baina ez kontatu inori, ados? Bion arteko sekretua izango da.

Ba... gure gelan badago oso gustuko dudan ikaskide bat. uste dut maitemindu naizela. Berak ez daki ezer, eta nire lagunek ere ez, noski. Hau lotsa! Batzuetan berarekin topo egiten dudanean, nire bihotz taupadak bizkortu egiten dira: taup-taup, taup-taup... eta ezin izaten naiz beste ezertan kontzentratu!

Behin testua irakurrita, bilatu galderen erantzuna testuan, eta azpimarratu. Ondoren erantzun galderak ikasi dugun bezala.

1. Zer egiten du idazleak urtero-urtero?

.....

.....

2. Nork edo nortzuk oparitu diote koadernoak?

.....

.....

3. Zertarako erabiliko du koadernoak?

.....

.....

4. Zergatik ez du denborarik izaten idazteko?

.....

.....

5. Nori kontatu dio sekretua?

.....

.....

6. Zein da sekretua?

.....

.....